

GIZARTE-ZERBITZUEN ALORREAN LAN EGITEN DUTEN ELKARTEEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO ARAU-OINARRIAK

1.- XEDEA

Deialdi honen xedea da diru-laguntzak norgehiagoka-erregimenean emateko modua arautzea, eta haien onuradun izango dira gizarte-zerbitzuen alorrean lan egiten duten pertsonak eta elkarteak, beti ere, irabazi asmorik gabekoak direnean.

Oinarri hauek arautzen dituzten laguntzak emango dira bai elkarteentzat beraiantzat, bai elkarte-jardueraren xede diren kolektiboentzat prestatutako berariazko programak eta/edo zerbitzuak aurrera eramateko.

2.- ONURADUNAK

Irabazi-asmorik gabeko elkarte eta entitateek eska ditzakete diru-laguntzak, jarduerak gizarte zerbitzuetako gizarte ekintzan jardunez gero.

3.- ESKAERAK

Zumaiako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako departamentuak deialdian ezarritako ereduaren arabera aurkeztuko dira eskaerak.

Arau-oinarriak eskuratzeko, agiriak eskuratzeko eta informazioa eskatzeko, jo helbide honetara: Gizarte Zerbitzuen departamentua, Aizkorri kaleko 4. zenbakia. Branka eraikina.

Eskabideak aurkezteak, deialdi honetan jasotako baldintza guztiak berariaz eta oso-osorik onartzen direla esan nahi du.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskaerak I. Eranskinaren jarraibideen arabera aurkeztu beharko dira eta eskaerarekin batera ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- a) Diru-laguntzaren eskaera normalizatua, I. eranskinean ematen denaren modukoa, behar bezala beteta.

- b) Jardueraren memoria
- c) Elkarte eskatzailearen ordezkari edo arduradun den pertsonaren NANaren fotokopia.
- d) Eusko Jaurlaritzako elkarteen eta entitateen erregistroko inskripzio-ziurtagiria.
- e) Identifikazio fiskaleko kodea adierazten duen agiriaren fotokopia.
- f) Zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak egunean betetzen direla egiaztatzen duen agiria.
- g) Instituzio eta erakundeetan egin diren diru-laguntza-eskaerei buruzko adierazpena edo, halakorik bada, jaso diren diru-laguntzena.
- h) Zinpeko aitortpena, diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela edo horretarako gaitasunik ez duela esanez legezko debekuan sartuta ez dagoela azalduko duena. Debeku horietan barne izango da sexuagatiko diskriminazioaren ondorioz jasotako debekua, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoak, azken xedapenetako seigarrenak arautzen duen ildotik.
- i) Elkarte edo entitatearen urteko gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua.
- j) Diruz laguntzeko aurkezten den programari dagokion gastuen eta diru-sarreraren aurrekontua.

5.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Eskaerak Udalaren Erregistro Orokorrean edo Gizarte Zerbitzuetako Departamentuan aurkeztu behar dira, hamabost egun naturaleko epean, dirulaguntza hauen deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunetik kontatzen hasita. Hilabeteko epearen amaierako eguna igandea edo egun baliogabea balitz, hurrengo egun balioduna izango da epe horren amaierako eguna.

Egiaztatzen bada aurkeztutako dokumentazioa ez dagoela osorik edo dokumentazio horrek ez dituela betetzen oinarri hauetan adierazitako baldintzak, pertsona interesdunari eskatuko zaio akats formalak egutegiko hamar eguneko epean konpontzeko edo beharrezkoak diren agiriak aurkezteko. Adieraziko zaio, hori egiten ez badu, ezetsizat joko dela bere eskaera, eta hura artxibatuko dela, bestelako tramiterik egin gabe, indarreko araubideak adierazten duen moduan.

6.- ESKAERAK BALORATU ETA LAGUNTZAK NORI EMAN HAUTATZEKO IRIZPIDEAK

1.- Urtean zehar Zumaiaiko Udaleko gizarte-zerbitzuekin eta beste elkarte batzuekin egindako elkarlana, koordinazioak, jarraipenak, proposamenak, informazio-trukatzeak: 10 puntu.

2.- Zumaiaiko elkartearen izatea edo Zumaian ordezkari bat izatea: 10 puntu

3.- Urtean zehar elkartean bazkide gisa, afektatu moduan eta/edo senide gisa parte hartu duten pertsonen kopurua: 10 puntu

4.- Elkarteak urtean zehar herrian betetzen duen egitaraua edo egiten dituen jarduerak: 10 puntu

Elkarteen egitaraua eta egiten dituzten jarduerak baloratuko dira oro har, baita Zumaian berriazko programak egitea eta herrian programa edo jarduera esperimental eta berritzaileak ezartzea ere.

5.- Elkarte eta/edo entitateak Zumaiarentzat aurreikusten dituen helburu orokorrak eta zehatzak: 10 puntu.

7.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK.

Diruz lagun daitezkeen gastuak dira diruz laguntzen diren jarduerak egiteko egin behar direnak, baldin eta oinarri hauetan ezarritako epean egiten badira. Alderdi horri dagokionez, beti izango da betetzeko Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 31. artikulua (azaroaren 17ko 38/2003 Legea).

8. -ESKAERAK AZTERTU ETA BALORATZEA

Gizarte ekintzaren alorrean egiten diren eskaerei dagozkien oinarri orokorretan jasotako prozedurak aztertzea gizarte langileari dagokio.

Oinarri orokorren 17.2 artikuluan jasota dagoenari jarraituz, balorazio batzordea honela osatuko da:

- Idazkaria
- Kontu-hartzailea
- Gizarte Zerbitzuetako arduraduna

9.- ERABAKIA

Instrukzio-arduraduna izango da, aurrez Gizarte Zerbitzuen ataleko balorazio batzordearen txosten teknikoa jaso eta gero, ebazpen-proposamena egingo duena.

Erabakia hartzeko eskumena duen udal-organoa Alkatea da.

Guztia gehienez 2 hilabeteko epean egin beharko da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hastia.

Aipatutako epea igaro eta gero, Udalak eskabideren bati buruzko erabaki zehatzik hartu gabe izango balu, erantzuna ezezkoa dela esan nahiko du horrek.

10.- DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA HURA ORDAINTZEKO MODUA

Zenbatekoa.

Diru-laguntzaren zenbateko osoak ezingo du izan, inoiz ere, bera bakarrik edo beste herri-administrazio eta erakunde publiko edo pribatuek emandako diru-laguntzekin batuta, onuradunak egin behar duen jardueraren kostuarena baino handiagoa.

Egitaraua edo jarduera garatzeko orduan, benetako kostua aurkeztutakoa baino gutxiagokoa baldin bada, onartutako diru-laguntza benetako gastuaren neurrian gutxituko da.

Urteko diru-laguntza kontzeptuan jasotako kopurua, behin betiko diru-laguntza erreala baino gehiagokoa izango balitz, diferentzia itzuli beharko litzateke.

Ordainketa.

Banku-transferentzia bidez egingo da diru-laguntzen ordainketa, erakunde onuradunaren titulartasuneko kontu batean.

Diru-laguntza emango dela jakinarazi eta gero, onartutako zenbatekoaren %70 ordainduko da.

Urtero onartuko den deialdian ezartzen den epean aurkeztu behar diren ekintzen memoria eta frogagiriak egiaztatu ondoren, gainerako %30 ordainduko da.

Deialdiko xede diren ekintzak egiteko behar diren diru-zenbatekoen ordainketa aurreratutak egitea baimen dezake alkate-udalburuak. Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak, 38/2003 legeak 34. artikulua egiten duen araupenaren arabera egingo dira aurrerapen horiek.

11.- DIRU-LAGUNTZEN ERABILERAREN JUSTIFIKAZIOA

Diru-laguntza nola erabili den justifikatzeko oinarri espezifiko hauei dagozkien oinarri orokorren arabera egingo da, bai eta diru-laguntza deialdian jasotakoaren arabera ere.

Gastuak justifikatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Diruz lagundutako programa edo jardueraren memoria xehakaturia. Bertan adierazi beharko dira egindako jarduerak eta lortutako emaitzak.
- b) Justifikazio-memoria ekonomikoa, jatorrizko egiaztagiriez osatua.
 - Aurkeztutako egiaztagirien (fakturen) zerrenda zenbakitua.
 - Diru-sarreraren eta gastuen balantze ekonomikoa. Diruz lagundu den jarduera finantzatzeko baliatu diren bestelako diru-sarrera edo diru-laguntzen zerrenda xehakaturia, haien zenbatekoak eta jatorria adieraziz.
 - Dokumentazio grafikoa (kartelak-egitarauak) edo ikus-entzunezkoa (halakorik bada).
 - Halakorik bada, aplikatu gabeko diru-gerakinen itzulerari dagokion ordainketa-agiria eta haiengandik eratorritako interesena.

12.- PUBLIZITATEA ETA HIZKUNTZA-BETEBEHARRAK

Oinarri hauen baitan emandako diru-laguntzen onuradun diren entitateek behar bezala iragarri behar dute, euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz, beren egitarauak, jarduerak, inbertsioak edo direnik diren ekitaldiak diru-laguntza publikoak jaso dituztela.

Jarduerak iragartzeko materialetan eta herritarrei begirako harremanetan euskara erabili beharko da, eta bietara egiten denean euskara lehenetsita. Udalak elkarteekin dituen harremanetan euskara erabiltzea sustatuko du, bai ahoz, bai idatziz (txostenak, memoriak, etab.).

13. ARAUBIDEA

Deialdi honek aurreikusi gabeko alderdi guztietan, betetzekoak izango dira azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzei buruzko lege orokorra (azaroaren 18an argitaratua Estatuko Aldizkari Ofizialean), lege horren garapeneko erregelamendua, uztailearen 21eko 887/2006 errege-dekretuaren bidez onartua (uztailearen 25ean argitaratua Estatuko Aldizkari Ofizialean), Zumaiko Udalaren diru-laguntzak emateko Ordenantza Arautzaile Orokorra

Zumaian, 2011ko urtarrilaren 19an